



TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Busturiko Udaletxea

EGUNA / FECHA: 4/2/2015

HASIERA / INICIO: 20:15

AMAIERA / FINAL: 20:20

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATESA/ALCALDESA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (Bildu)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Jone Miren Arrasate Urkiaga (Bildu)

Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate andrea buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate andrearen aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden de la Sra. Alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Batzordeak aho batez onartu zuen 2015ko urtarrilaren 14ko saioko akta.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 14 de enero de 2015.

2.- 2014 ekitaldiko Udal Aurrekontuaren likidazioa eta aurrekontuzko egonkortasun helburua betetzeari buruzko txostena.-

Kontuan hartuta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 46. artikulua ezartzen duela ekitaldi bakoitzeko aurrekontua eskubideen bilketari eta betebeharren ordaintetari dagokienez dagokion urte naturaleko abenduak 31 baino lehen likidatuko dela. Kontuan hartuta 10/2003 Foru Arauaren 5. eta 6. atalek ezartzen dutela diruzaintzako soberakina funts likidoek gehi kobratzeko dauden eskubideek ken ordaintzeko dauden betebeharrek osatuko dutela, guztiak ekitaldiko abenduaren 31ri dagokionez, eta bertatik kobratzeko zailtzat edo ezinezkotzat jotzen diren kobratzeko dauden eskubideak kenduko direla. Kontuan hartuta Aurrekontuaren likidazioa datorren ekitaldiko martxoak 31 baino lehen osatuko dela, onarpena Alkatezari dagokiola, udal idazkaritza Kontuhartzailearen aurretiko txostena jasota, Udalbatzari jakinaraziko zaiola (10/2003 Foru Arauaren 49.3. art.). Kontuan hartuta 10/2003 Foru Arauaren 59.5. artikulua ezartzen duela aurrekontuaren likidazioaren kopia Foru Aldundiari bidali behar zaiola, onartu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik, honek eskumena duten administrazioei bidaltzeko ardura izango duelarik. Kontuan hartuta 3.1. artikulua, Aurrekontuzko Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 2.1.c) artikuluekin bat etorrira, ezartzen duela Aurrekontuaren eta Toki Erakundearen gastuei edo dirusarrerai eragiten dieten gainerako jarduketan lanketa, onarpena eta exekuzioa aurrekontuzko egonkortasunaren baitan egongo direla, Europako araudiarekin bat etorrira, aurrekontuzko egonkortasuntzat egiturazko oreka edo superabita jota, eta lege beraren 4. artikulua eranstean duela Herri Administrazioen jarduketak ere finantza

2.º.- Liquidación del Presupuesto municipal del ejercicio 2014 e informe sobre el cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria.-

Considerando que el artículo 46 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, establece que el Presupuesto de cada ejercicio se liquidará en cuanto a la recaudación de derechos y al pago de obligaciones el 31 de diciembre del año natural correspondiente; considerando que los apartados 5 y 6 del artículo 48 de la Norma Foral 10/2003 establece que el remanente de tesorería estará integrado por los fondos líquidos, más los derechos pendientes de cobro y menos las obligaciones pendientes de pago, todos ellos referidos al 31 de diciembre del ejercicio y que de él se deducirán los derechos pendientes de cobro que se consideren de difícil o imposible realización; considerando que la liquidación del presupuesto se confeccionará antes del día 31 de marzo del ejercicio siguiente, correspondiendo su aprobación a la Alcaldía, previo informe de la Secretaría-Intervención municipal, dándose cuenta al pleno de la Corporación (art. 49.3 de la Norma Foral 10/2003); considerando que el artículo 49.5 de la Norma Foral 10/2003 determina la obligación de enviar copia de la liquidación de sus presupuestos a la Diputación Foral, antes de finalizar el mes siguiente a su aprobación, siendo ésta la encargada de enviarla a las administraciones competentes; considerando que el artículo 3.1 en concordancia con el artículo 2.1.c) de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, establece que la elaboración, aprobación y ejecución de los Presupuestos y demás actuaciones que afecten a los gastos o ingresos de las Entidades Locales se realizará en un marco de estabilidad presupuestaria, coherente con la normativa europea, entendiéndose la estabilidad presupuestaria como la situación de equilibrio o superávit estructural y que el artículo 4 de la misma Ley



iraunkortasunaren printzipioaren mende egongo direla, eta hori izango dela uneko eta etorkizuneko gastuetarako konpromisoak defizit eta zor publikoaren muge barruan finantzatzeko gaitasuna, Lege honetan eta Europako araudian ezarritakoaren arabera. Kontuan hartuta Aurrekontuzko Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 1872001 Legearen garapen araudia onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuaren 16. artikulua, toki erakundeei aplikatuta, ezartzen duela udal Kontu-hartzailetzak Udaltzari Toki Erakundearen berearen eta bere mendeko Organismo eta Erakundeen egonkortasun helburuaren betetzearen inguruko txosten bat bidaliko diola. Txostenak izaera independentea izango du eta Toki Ogasunen Lege Araztearen testu betegina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 191.3. artikuluan aurreikusitakoei erantsiko zaie.

Ikusita udal Idazkaritza Kontu-hartzailetzak Udal Aurrekontuaren likidazioari eta aurrekontuzko egonkortasun helburuaren betetzeari buruz emandako txostena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen:

LEHENA.- 2014 ekitaldiko udal Aurrekontuaren likidazioa onartzea, txostenean jaso bezala eta Idazkaritza Nagusiaren eta udal Kontu-hartzailetzaren txostenetan adierazitakoaren arabera, honako emaitzarekin:

Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, añade que las actuaciones de las Administraciones Públicas también estarán sujetas al principio de sostenibilidad financiera, entendiendo como tal la capacidad para financiar compromisos de gasto presentes y futuros dentro de los límites de déficit y deuda pública, conforme a lo establecido en esta Ley y en la normativa europea; considerando que el artículo 16 del Real Decreto 1463/2007, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el reglamento de desarrollo de la Ley 18/2001, de 12 de diciembre, de Estabilidad Presupuestaria, en su aplicación a las entidades locales, que la Intervención municipal elevará al Pleno un informe sobre el cumplimiento del objetivo de estabilidad de la propia Entidad Local y de sus Organismos y Entidades dependientes. El informe se emitirá con carácter independiente y se incorporará a los previstos en el artículo 191.3 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales.

Visto el informe emitido por la Secretaría-Intervención municipal sobre la liquidación del Presupuesto Municipal y sobre el cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

PRIMERO.- Aprobar la liquidación del Presupuesto municipal del ejercicio 2014 en los términos que constan en el expediente y de conformidad con lo expuesto en los informes de la Secretaría General y de la Intervención municipal con el siguiente resultado:

A) AURREKONTUZKO EMAITZA: / A) RESULTADO PRESUPUESTARIO:

Onarturiko eskubide garbiak / Derechos reconocidos netos	1.652.113,23 €
Onarturiko betebeharrak / Obligaciones reconocidas netas.....	1.655.096,11 €
Itxitako ekitaldietako diru-sarrerak eta etekinak / Ingresos y beneficios ejercicios cerrados	6.469,51 €
Itxitako ekitaldietako baliogabeturiko eskubideak / Derechos anulados de ejercicios cerrados	649,53 €
Aurrekontuzko emaitza / Resultado presupuestario	2.837,10 €
Finantzaketa desbideratze positiboak / Desviaciones positivas de financiación	0,00 €
Finantzaketa desbideratze negatiboak / Desviaciones negativas de financiación	0,00 €
Diru zaintzako Gainerako Likidoaren finantzatutako gastuak / Gastos financiados con Remanente Líquido de Tesorería	28.036,55 €
Aurrekontuzko emaitza doitu / Resultado presupuestario ajustado	30.873,65 €

B) DIRUZAINZAKO SOBERAKINA / B) REMANENTE DE TESORERÍA:

a) Kobratzeko dauden zordunak / a) Deudores pendientes de cobro	206.337,19 €
Diru-sarreraren Aurrekontukoa, Arrunta / De Presupuesto de Ingresos, Corriente	97.001,77 €
Diru-sarreraren Aurrekontukoa, Itxiak / De Presupuesto de Ingresos, Cerrados	105.573,97 €
Aurrekontutik kanpoko beste Eragiketa batzuetakoak / De Otras Operaciones No Presupuestarias.....	3.761,45 €
b) Ordaintzeko dauden Hartzekodunak / b) Acreedores Pendientes de Pago	149.101,45 €
Gastuen Aurrekontukoa, Arrunta / De Presupuesto de Gastos, Corriente	79.050,19 €
Gastuen Aurrekontukoa, Itxiak / De Presupuesto de Gastos, Cerrados	5.000,00 €
Diru-sarreraren Aurrekontukoa / De Presupuesto de Ingresos	0,00 €
Aurrekontutik kanpoko beste Eragiketa batzuetakoak / De Otras Operaciones No Presupuestarias.....	65.051,26 €
c) Diruzaintzako Funtz Likidoak / c) Fondos Líquidos de Tesorería	219.387,92 €
d) Diruzaintzako Soberakin Likidoak (a-b+c) / d) Remanente Líquido de Tesorería (a-b+c)	276.623,66 €



e) Ukituriko finantzaketa duten gastuetarako soberakina /e) Remanente para gastos con financiación afectada.....	18.905,30 €
f) Zalantzako kobratze saldoak / f) Saldos de dudoso cobro	77.617,02 €
g) Gastu Orokorretarako soberakina (d-e) / g) Remanente para Gastos Generales (d-e-f)	180.101,34 €

BIGARRENA.- Likidazioaren kopia bidaltzea Bizkaiko Foru Aldundiari.

SEGUNDO.- Remitir copia de la liquidación a la Diputación Foral de Bizkaia.

3.- Udal Energia Plana idaztea.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ESETEC enpresak Udal Energia Plana idazteko egindako aurrekontua onartzea eta 15.778,40 €-ko aurrekonturekin Esetec Smart Energy enpresa kontratatzea.

3.º.- Redacción del Plan Energético Municipal.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar el presupuesto elaborado por la empresa ESETEC para la elaboración del Plan Energético Municipal, con un presupuesto de 15.778,40 € a la empresa Esetec Smart Energy.

4.- C. C. A.en idazkia.-

Jarraian, C. C. A.ek bidalitako idazkia irakurri zen, zeinetan San Bartolomeko biribilguneko arriskua saihesteko neurriak har daitezten egindako eskaerari Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailak emandako erantzunarekiko desadostasuna agertzen duen. Bere idazkian berriz esaten du komeni dela neurriak har daitezten, hala nola argi edo semaforo bidezko seinaleztapena, espaloien babes-elementuak edo antzekoak. Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen C. andrearen proposamenen alde egitea eta aipatu Sailari zuzentzea haietariko baten bat har dezatela eskatuz.

4.º.- Escrito de C. C. A.-

Seguidamente se dio lectura al escrito enviado por C. C. A., en el que manifiesta su disconformidad con la respuesta dada por el Departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia a su petición de medidas para evitar accidentes en la rotonda de San Bartolomé. En su escrito reitera la conveniencia de que se adopten medidas tales como señalización luminosa o semafórica, elementos de protección de la acera o similares. La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó apoyar las propuestas de la Sra. C. y dirigirse al citado Departamento solicitando que adopte alguna de ellas.

5.- E. U.ren eta N. Z.en idazkiak.-

Jarraian idatziak irakurri ziren. Idatziotan, josteta eta gimnasia ikastaroetan, hurrenez hurren, baja emateko eskaria egiten da; kontuan hartuta ikastaroen antolaketaren gainean onartu eta argitaratu ziren arauetan ez zela zehaztu ikasleek urte osorako ematen zutela izena eta ez zenez debekatu ikasturtean zehar baja emateko aukera (datorren urteko ikastaroak antolatzerakoan hau aurreikusitako beharko da), Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aipatu bi herritarren bajak onartzea.

5.º.- Escritos de E. U. y N. Z.-

Seguidamente se dio lectura a los escritos presentados por E. U. y N. Z. solicitando que se les dé de baja en los cursillos de costura y gimnasia, respectivamente, y considerando que en las normas que se aprobaron y publicaron sobre la organización de los cursos no se precisaba que los alumnos se inscribían para todo el año ni se prohibía que durante el desarrollo de los mismos los inscritos se pudiesen dar de baja (lo que se deberá prever cuando se organicen los cursos del próximo año), la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar las bajas de las dos personas citadas.

6.- C. F. A.ren eta E. M.ren eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen C. F. A.ren eta E. M.ren eskaera, eskulan ikastaroan izena emateko, ikastaroan plaza libreak daudela ikusita.

6.º.- Solicitud de C. F. A. y E. M.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición de C. F. A. y E. M. para inscribirse en el cursillo de manualidades, a la vista de que en el mismo hay plazas disponibles.



7.- Busturia Txirrindulari Taldearen lokal-eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Busturia Txirrindulari Taldeak egindako eskaera onartzea, Kultur Etxeko areto nagusia erabiltzeko datorren otsailaren 20an, 19:00etatik 20:30era, Euskadi Fundazioarekin batera hitzaldia eman ahal izateko eta martxoaren 1ean, 13:00etatik 14:00etara, taldea aurkeztu ahal izateko,

Eta besterik gabe, Alkate andereak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate andereak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Alkatea/La Alcaldesa,

Fdo: Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

7.º.- Solicitud del Busturia Txirrindulari Taldea para utilización de local.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición de utilización del salón de actos de la Casa de Cultura, realizada por el Busturia Txirrindulari Taldea, para celebrar una charla junto con la "Fundación Euskadi" el próximo día 20 de febrero, de 19:00 a 20:30 horas, y para la presentación del equipo, el día 1 de marzo de 13:00 a 14:00 horas.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. Alcaldesa y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez